

BEGIETARA BEGIRA

Malen Bastida Larrea

Azpeitia

Bizitzan gutxitan edo pelikuletan bakarrik azaltzen diren gauza horietako bat gertatu zitzaidan atzo. Pentsatzeaz bakarrik bihotza dantzan jartzen duten horietakoa.

Atzo gauean, apirilak hogeiko gau arrunt batean, nire urteak ospatzeko betidanik gogoko izan dudan musika talde baten kontzertura joan nintzen. Jende pilo zegoen, ikaragarritzko jendetza. Han errazena lagunengandik galtzea zen. Inguruko herrietako musika zale gehientsuenak han ziren.

Ia ezinezkoa zen norbait ezaguna aurkitzea, han galduz gero bakarrik nengoke. Baina sentsazio hura lipar batekoa baino ez zen izan. “Begietara begira” izeneko kantua jotzen ari zen “Vendetta” taldea, mutil baten begiak niri begira sumatu nituenean. Hasieran ez nuen ezagutu, baina niri begira ikusi nuenean gogoratu nuen aurpegi hura. Bost urte neramatzan aurpegi hura ikusi gabe. Bere begi urdin eta aurpegi pekadunak... eta bost urte ondoren berriro sentitu nuen berarekiko

konexioa. Bai, bost urte eta gero berriro agertu zen Telmo nire bizitzan.

Oso bitxia da Telmoren istorioa. Uda hasierako egun eguzkitsua, ikasturteko azken azterketetarako ikasten ari nintzen. Eta guztiz agobiaturik nengoenez, etxe ondoko parkera pasiera bat ematera joatea bururatu zitzaidan. Buruan nuen korapiloa pixka bat askatzera.

Ez zegoen jende asko parke hartan, eta banku batean eseri nintzen eguzki pixka bat hartzeko. Banku hartan eseri eta berehala konturatu nintzen mutil bat zegoela nire alboan eserita. Pixka bat arraroa egin zitzaidan mutil hura, bere munduan balego bezala mokoka ogiei ari ziren usoei begira. Inguruan inor eduki ez balu bezala. Arraroena nik diosala egin eta berak niri agurra ez bueltatzea egin zitzaidan. “... *lekuz kanpo sentitzen duzun horrek...*” Baina ez nion bueltarik eman, baneukan nahikoa azterketekin. Bazen ordua etxera bueltatzeko, eta imintziorik gabe alde egin nuen.

Biharamunean ere berriro parkera joatea pentsatu nuen, azterketa ez zitzaidalako guztiz ondo irten, eta deskonektatu nahi nuen. Kasualitatez, Telmo han zegoen, aurreko egunean bezalaxe, usoei ogi zatitxoak botatzen. Agurtu egin nuen, baina berriro ere ez nuen erantzunik jaso. Ez dakit zergatik, baina Telmoren alboan egoteko momentu hura gustatzen hasi zitzaidan, nahiz eta elkarrekin inongo elkarriketarik ez izan. “... *uzkurtu eta esadazu belarrira...*” Nor zen? Nire adinekoa ote zen? Zertara zihoan parke berera? Bakarrik ote zegoen munduan?

Bazkaltzean amari azaldu nion nire bankuko lagun misteriotsuaren istorioa. Berak kontatu zidan ezagutzen zuela, Telmo zuela izena eta autista zela. Entzuna neukan zerbait autismoari buruz, baina gauza larregirik ez. Momentu hartatik aurrera hasi nintzen guztia ulertzen. Orduantxe ulertu nituen agurrei ez erantzuteko arrazoiak. Hasieran ez nuen ulertzen autisten mundua eta horregatik hasi nintzen pixka bat gaiaren inguruan irakurtzen. Mundu itxia, arnasmunikatzen gabea, bakarrik bizitzea bezalatsu. Ingurukoei maite dituzula adierazi nahi diezu, baina apurto ezin dituzun kate batzuek loturik zaude. Azkenean preso zaude zeure munduan.

Aste batera azaldu nintzen berriz azterketak bukatu eta parkean musika entzutera. Nire musika talderik gogokoenen diska atera berria deskargatu nuen, eta lehen aldiz entzutera nindoan. Han zegoen Telmo beti bezala. Poltsikotik aurikularrak atera eta bankuan eseri nintzen. Musika oso altu jarri nuen antza, akorde guztiak entzun nahiko nukeen modura. Ikaragarri gustatu zitzaidan Vendettaren “Begietara begira” izeneko kanta berria, oso polita eta emoziozkoa zen. Bat-batean zerbait arraroa sumatu nuen Telmorengan. Agian musika altuegi nuen, eta aurikularrik gabe ere entzun zitekeen. Ni entzuten ari nintzena entzuteko gogoz balego bezala sentitzen nuen, baina aldi berean ez zen pausoa ematera ausartzen. Bi aldiz pentsatu gabe, aurikularra belarrian jarri nion. Hasieran beldurti eskua

apartatu nahian burua mugitu zuen. Baina gutxira, musikak erakarrita edo, utzi egin zidan eskua hurbiltzen. Segundo batzuk pasa ondoren, aurpegia guztiz aldatu zitzaion musika nota bakoitza dastatu nahian bezala.

Begiak itxita, musika entzunez eta eguzkia hartuz nire eskuan zerbait nabaritu nuen. Tanta bat. Euria? Zerua oskarbi zen. Ez. Malko bat. Telmorena.

Gaur, nire urteak ospatzeko kontzertuan “Begie-tara begira” jo dutenean, Telmok irribarre batez begiratu eta eskua altxatu didanean...

*“...beraz amestuko dut kalean topatu eta honakoa oihukatuko dizudala...
...begietara begira...”*